

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 560/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Behin betiko onestea Oiongo udalerriko egindako ondasun higiezin gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa

Uztailaren 31ko 427/2019 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketari; Oiongo udalerriari dagokio, eta abuztuaren 27ko 248/2018 Foru Aginduaren arabera egin da, zeinak onetsi baitzuen betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 19ko 110/2018 Foru Aginduak, Oiongo udalerriko Herri Antolamendu Plangintza Orokorren 7. aldaketa puntualaren espedientea (Litalsarentzat industria lurzoria zabaltzeari buruzkoa) behin betiko onetsi zuenak zenbait baldintzarekin, ezarritako baldintzak.

Ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikulua 4. apartatuan, 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, eta epe hori igarota, Oiongo Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea, erantsita doazen 1: 1.000 eta 1: 3.000 eskalako planoen arabera, ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa; Oiongo udalerriari dagokio, eta abuztuaren 27ko 248/2018 Foru Aginduaren arabera egin da, zeinak onetsi baitzuen betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 19ko 110/2018 Foru Aginduak, Oiongo udalerriko HAPOaren 7. aldaketa puntualaren espedientea (Litalsarentzat industria lurzoria zabaltzeari buruzkoa) behin betiko onetsi zuenak zenbait baldintzarekin, ezarritako baldintzak.

Bigarrena.- Hori gorabehera, kontuan izan behar da ondasun higiezin gaineko zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Oiongo Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikulua 5. apartatuan eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2019ko irailaren 10a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTÍNEZ